

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

ALKATETZA, ERAKUNDE HARREMANAK ETA BERDINTASUNAREN SAILA

Euskara Zerbitzua

2024-2025 ikasturtean euskararen erabilera sustatzeko proiektuak egiteko dirulaguntza-deialdiaren ebazpena

Vitoria-Gasteizko Udalaren 2024eko dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorreko 24.6. artikulua betez, Tokiko Gobernu Batzarrak 2024ko azaroaren 8an hartutako erabakiaren berri ematen zaie interesdunei. Bertan, 2024-2025 ikasturtean euskararen erabilera sustatzeko proiektuak egiteko dirulaguntza-deialdia ebazten da. Hala dio ebazpen berriak:

2024ko maiatzaren 17an egindako ohiko bilkuran onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak 2024-2025 ikasturtean euskararen erabilera sustatzeko proiektuak egiteko dirulaguntzetarako deialdia arautuko duten oinarriak.

Ekainaren 7an argitaratu ziren ALHAOean deialdia arautzen duten oinarriak. Deialdiaren zuzkidura 96.000,00 eurokoa izan da Alkatezaren, Erakunde Harremanen eta Berdintasunaren Saileko Euskara Zerbitzuaren 2024ko ekitaldiaren aurrekontuaren 0171.3351.48005 diru-atalaren kontura.

Balorazio batzordea 2024ko uztailaren 23an bildu zen, eskaerak aztertzeko eta ebaluatzeko.

96.000,00 euroko kopurua sei multzotan banatuta dago, modu honetan:

- A multzoa: HABEko erregistroan homologatu gisa ageri diren hiriko euskaltegiek antolatutako ekintzak. 12.000,00 euro.
- B multzoa: Guraso-elkarteek edo guraso elkarten federazioek antolatutako ekintza edo jarduera ez ohikoak, ikasleei zein gurasoiei begira pentsatutakoak eta sentsibilizazioa edo euskara erabiltzeko ohiturak sortzea helburu dutenak. 21.000,00 euro.
- C multzoa: aisialdian edo kirolean euskararen erabilera sustatzeko proiektuak. 25.000,00 euro.
- D multzoa: Vitoria-Gasteizko euskarazko tokiko hedabideak sendotzea, euren kalitatea eta irismena hobetzeko. 20.000,00 euro.
- E multzoa: Euskararen Nazioarteko eguna ikusmiran hartuta, 2024ko azaroaren 1etik abenduaren 3ra bitartean antolatutakoak diren ekintzak. 12.000,00 euro.
- F multzoa: Haur eta gazteen aisialdirako hezitzaileak trebatzeko eskolentzako laguntza. 6.000,00 euro.

A, B, C, D eta E taldeetan, hautatutako proiektu bakoitzari dagokion dirulaguntzaren zenbatekoa kuantifikatzeko, deialdiaren kreditua lortutako puntuazioaren eta proiektuaren aurrekontu doituaren arabera banatuko da (atal bakoitzean ezarritako gehieneko zenbatekoaren eta mugen arabera). Balorazio Batzordeak doitu du proiektuaren aurrekontua, beste administrazio publiko batzuek proiektu bererako emandako dirulaguntzak aintzat hartuta edo eskatutako kontzepturen bat diruz laguntzeko modukotzat jotzen ez den kasuetan.

F taldeari dagokionez, emateko prozedura konkurrentzia sinplea izango denez, eskatzaile bakoitzak 180,00 euro jaso ahal izango ditu ikastaroetan matrikulatutako pertsona bakoitzeko.

Batzordeak proiektuak puntuatu ditu, deialdian zehaztutako balorazio-irizpideei jarraituz eta talde bereko proiektuak elkarren artean alderatuz. Eskabideak aztertu eta proiektu bakoitzaren balorazioak ikusi ondoren, batzordeak ondoren jasotzen diren puntuazioak proposatu ditu, espedientean jasota dagoen txostenean zehazten den bezala.

Batzordeak proposatu du A taldean soberan geratzen den dirua (7.520,00 euro) eta F (60,00 euro) B taldera bideratzea, deialdiaren oinarriek ahalbidetzen duten moduan. Beraz, 28.580,00 euro banatuko dira B taldean:

TALDEA	ENTITATEA	PUNTUAK	AURREKONTUA	GEHIENAKOIA	DIRULAGUNTZA PROPOSAMENA
A	Ardatz-IKA	65	5600,00	4480,00	4480,00
B	Abetxuko - Zadorrako Zubia GE	85	2184,81	1834,81	1027,86
B	Adurtza ikastola - Ikasberri GE	59	3700,00	3700,00	1319,72
B	Angel Ganivet - Izartegia GE	81	1100,00	1100,00	714,85
B	Aranbizkarra - Zuriber GE	82	4000,00	4000,00	1833,30
B	Arantzabela ikastola - Oihan GE	66	2890,00	2890,00	1190,69
B	Barrutia - Ehari GE	62	2500,00	2500,00	1023,37
B	Errekabarri - Eguzkia GE	60	3975,00	3975,00	1245,75
B	Herrandarrak	55	1300,00	1300,00	632,45
B	Hogar San José	69	3075,00	3075,00	1291,05
B	Ikasbidea - Iturribero GE	54	7950,00	4000,00	1308,95
B	IPI Sansomendi - Auzo ametsa GE	87	5000,00	4000,00	1926,94
B	Judimendi - El Polvorín GE	82	600,00	600,00	528,05
B	Lakuabizkarra - Eguzkilore GE	57	2600,00	1693,39	749,60
B	Landazuri - Bambi GE	87	2129,59	2129,59	1165,11
B	Lopez de Guereñu - Gorbea GE	76	2500,00	2500,00	1187,23
B	Mariturri - Haize GE	64	4500,00	4000,00	1496,22
B	Mendebaldea - Etorkizun alea	61	1700,00	1700,00	783,20
B	Niño Jesús	50	7200,00	4000,00	1234,05
B	Ramón Bajo - Basartea GE	70	2350,00	2350,00	1067,85
B	Sagrado Corazón	55	4000,00	4000,00	1327,68
B	Salburua - Aintzira GE	62	1400,00	1400,00	704,08
B	San Ignacio - Olaitu GE	96	3790,00	3700,00	1960,65
B	Tokieder - Lekueder GE	67	4050,00	4000,00	1552,40
B	Umandi GE	54	25989,51	4000,00	1308,95
C	Araberrí	85	25535,00	4350,00	3516,41
C	AFDA	75	38275,00	4500,00	3209,70
C	Arabagara	75	7000,00	3000,00	2139,80
C	Barrutia	85	7500,00	3000,00	2425,11
C	Burdinbide	77	3000,00	2400,00	1757,49
C	Euskarabentura	85	6725,00	2300,00	1859,25
C	Judimendikoak	77	2000,00	800,00	585,83
C	Kontseilua	80	12900,00	3000,00	2282,45
C	Olabide	85	11268,20	3000,00	2425,11
C	Pilota Elkartea	75	6000,00	1800,00	1283,88
C	Sarburu	80	3850,00	3080,00	2343,32
C	Uribe-Nogales	77	2000,00	1600,00	1171,66
D	Alea	75	254000,00	20000,00	20000,00
E	GEU	75	4800,00	3600,00	3600,00
E	Alea. Bertso-koplak	80	5500,00	4000,00	4000,00
E	Arabagara	75	5500,00	4400,00	4400,00
F	Arduradun Eskola	-	3240,00	3240,00	3240,00
F	Urtintxa Astialdi Eskola	-	2700,00	2700,00	2700,00

Arabako Foru Aldundiak diruz laguntzen dituen Lakuabizkarra-Eguzkilore proiektuan, jasoko duten kopuruen berri jaso dugunez, aurrekontuak doitu egin dira ofizioz, gainfinantziaziorik ez gertatzeko.

Kontuan harturik, lehenik, dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean ezarritakoa; bigarrenik, horren araudia onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua; hirugarrenik, Toki Korporazioen Zerbitzuei buruzko araudiaren 23. artikulua eta hurrengoek diotena; eta azkenik, dirulaguntzei buruzko udal ordenantzak ezarritakoa.

Kontuan harturik Vitoria-Gasteizko Udalaren Euskara Zerbitzuaren misioa eta helburu estrategikoak.

Ikusirik 2023ko ekainaren 22eko Eskumenen Ordezkaritzari buruzko Alkatetzaren Dekretua, Dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren 8.1. artikulua, eta Toki Araubidearen Oinarriari buruzko Legearen 127.1.g) artikulua, Alkatetzaren, Erakunde Harremanen eta Berdintasunaren Saileko zinegotzi ordezkariak honako proposamen hau egin dio Tokiko Gobernu Batzarrari:

Proposamena

Lehena. 2024-2025 ikasturtean euskararen erabilera sustatzeko proiektuak diruz laguntzeko deialdia ebaztea, eta koadroan zehazten diren entitateei, bertan zehazten diren diru-kopuruak esleitzea (orotara 96.000,00 euro), 2024/ 0171.3351.48005 diru-atalaren kontura:

TALDEA	ENTITATEA	DIRULAGUNTZA PROPOSAMENA
A	Ardatz-IKA	4480,00
B	Abetxuko - Zadorrako Zubia GE	1027,86
B	Adurtza ikastola - Ikasberri GE	1319,72
B	Angel Ganivet - Izartegia GE	714,85
B	Aranbizkarra - Zuriber GE	1833,30
B	Arantzabela ikastola - Oihan GE	1190,69
B	Barrutia - Ehari GE	1023,37
B	Errekabarri - Eguzkia GE	1245,75
B	Herrandarrak	632,45
B	Hogar San José	1291,05
B	Ikasbidea - Iturribero GE	1308,95
B	IPI Sansomendi - Auzo ametsa GE	1926,94
B	Judimendi - El Polvorín GE	528,05
B	Lakuabizkarra - Eguzkilore GE	749,60
B	Landazuri - Bambi GE	1165,11
B	Lopez de Guereñu - Gorbea GE	1187,23
B	Mariturri - Haize GE	1496,22
B	Mendebaldea - Etorbizun alea	783,20
B	Niño Jesús	1234,05
B	Ramón Bajo - Basartea GE	1067,85
B	Sagrado Corazón	1327,68
B	Salburua - Aintzira GE	704,08
B	San Ignacio - Olaitu GE	1960,65
B	Tokieder - Lekueder GE	1552,40
B	Umandi GE	1308,95
C	Araberrí	3516,41
C	AFDA	3209,70
C	Arabagara	2139,80
C	Barrutia	2425,11
C	Burdinbide	1757,49
C	Euskarabentura	1859,25

TALDEA	ENTITATEA	DIRULAGUNTZA PROPOSAMENA
C	Judimendikoak	585,83
C	Kontseilua	2282,45
C	Olabide	2425,11
C	Pilota Elkartea	1283,88
C	Sarburu	2343,32
C	Uribe-Nogales	1171,66
D	Alea	20000,00
E	GEU	3600,00
E	Alea. Bertso-koplak	4000,00
E	Arabagara	4400,00
F	Arduradun Eskola	3240,00
F	Urtintxa Astialdi Eskola	2700,00

Bigarrena. Deialdiaren ebazpena onartzean, esleitutako diru-kopuruaren ehuneko 80 ordaintzea. Gainerako ehuneko 20a dirulaguntza behar bezala justifikatu ondoren ordainduko da.

Hirugarrena. Ebazpen honen berri ematea erakunde interesdunei, ALHAOn argitaratuta, eta jakinaraztea, halaber, erabaki honek agortu egiten duela administrazio bidea eta berorren kontra zuzenean aurkeztu ahal izango dela administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzitarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazte edo argitalpen egunaren biharamunetik kontatuta.

Nolanahi ere, alde zuzenetik aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez daitezke erabakia hartu duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik —kasu horretan, ezingo da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik aurkeztu hori espresuki edo ustez ebatzi arte—. Ondoren, berariazko ebazpena ematen bada, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, bi hilabeteko epean, egintza jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik; bestela, edozein unetan aurkeztu ahal izango da, araudi espezi-fikoaren arabera administrazioaren isiltasunaren ondorioak sortzen diren egunaren biharamunetik aurrera. Dena den, interesdunek egoki iriztitako beste edozein errekurtso aurkez dezakete, nahi badute, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 40.2 artikuluan aurreikusitakoaren ildotik.

Laugarrena. Era berean, dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dagokion informazioa argitaratzea, dirulaguntzak arautzen dituen azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 20. artikulua betetzeko.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko azaroaren 29an

Alkatetzaren, Erakunde Harremanen eta Berdintasunaren Saileko zinegotzi ordezkaria
ANA ROSA LÓPEZ DE URALDE GÓMEZ